

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Patta ta Sendaezinak.
Patta ta Sendaezinak.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 46'59".
10 euro.

Botila onean hamarkadatan gordetako rocka

JOTAKIE taldearen sorreran aritutako Jesus Sudupe *Pattak* eta Luciano *Luka* Martinek Urolako musikari gazteagoen laguntzarekin betiko rockaren gaitza non-nahi zabaltzeko ahaleginetan dihardute. Horretarako erabili dituzte, pop-rocka, power-popa, tronparen moldaketak eta kontrastea lantzen duten bi ahots, bata ederra eta bestea, *Pattarena*, egiazkoa eta oso hurbila. Nik hurbil sumatzen ditut Itoiz, Jotakie –jakina–, Errobi, Egan eta rock amerikarretik; eta

are hurbilago entzulearengandik *Pattaren* testigantzak entzunda. Badu galtzaille jarreratik, baina gehiago egiazkotik, egunerokotasunetik; eta moldaketek Ruper Ordorikaren diskoak gogorarazi dizkirate. Bere jarrera xumearekin –baina emaitza dotorearekin– lortu du iraganeko euskal rockak zuen soinua berreskuratzea. Sendaezinak hala bizi behar!

www.hotsak.com

Jesus Sudupe *Patta* - *Patta ta Sendaezinak*

«Ez naiz abeslari ona, ahotsa ere kaskarra dut, baina sinisten dut transmisioan»

“Inora eramango nauen busa”... musika da? Zer eman dizu?

Musika, rocka, zure barrura iritsi eta hor bizi diren emozioak, sentimenduak, ikuspuntuak eta iritzi desberdinak adierazteko bidea da. Eta nahi nuke musikaren busean joanez bidaia bera topera bizi.

Zaila da zurearen moduko betiko rocka aurkitzea, lehengo soinua duena: Itoizen estiloko melodiak, hitz oso biluziak, bi ahotsen arteko jokoak, baladak...

Diskoko kanteak oinarria 70eko eta 80ko hamarkadetan egiten zen musikan dute. Melodiak nagusi dira: pop ukitua, rhythm&blues, amerikana pixka bat eta brit-popa.

“Zer gehixeago izan behar dut gutxiago nahi badut izan”. Gutxiago gehiago da?

Bai noski. Sinplea eta hobe, sendoagoa! Baina esentziara iristeko, aurretik gauza asko egin behar dira.



Jesus Sudupe *Patta* argazkian.

Sendaezin gazteagoei musikaren gaitza kutsatu diezu? Nolakoa da beste belaunaldi batzuekin batera aritzea?

Nirekin elkartu aurretik kutsaturik zeuden. Gazte hauekin lan egitea oso aberasgarria da.

Tronpak oso efektu berezia eta aproposa gehitzen die rock kantei. Oso argi zenuen sartu nahi zenuela?

Lehenengo piano jotzailea aurkitu nuen eta geroxeago tronpa. Biek heziketa klasikoa dute eta hori beti da abe-

ratsa, abestiek bestelako kolorea hartzen dutelako. Tronpak goxotasunaren dohaina du, beti zaio lagungarri melodiari.

Ahaztu nazazu behingoz. Bada Jotakieren garaitik faltan botatzen duzunik?

Jotakieren garaitik odol gaztearen falta botatzen dut, alegia 20 urte edukitzea.

Oso sinesgarri abesten duzu, oso hurbileko... Baduzu sekreturik?

Beno, ez naiz abeslari ona, ahotsa ere kaskarra dut, baina sinisten dut transmisioan eta abesten duzuna sentitzean.

Nik lo egin nahi dut. Borrokatzeaz nekatuta?

Lo egin nahi dut, bai, batzuetan nekatua sentitzen naiz baina oraindik borrokak jarraitu behar du. Borroka bera da bidaia eta momentu politak gure garaipen tikiak. ■

